

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Etxean piztutako sute batean hiltzeko arriskua 65 urtetik aurrera biderkatu egiten da

Beaumont kontseilariak kolektibo horren segurtasunean oinarritutako Suteak Prebenitzeko Astea inauguratu du gaur goizean

Lunes, 26 de octubre de 2015

65 urteko pertsona batek batez bestekoak baino probabilitate bikoitza du etxeko sute batean hiltzeko, eta arrisku hori hirugatik biderkatzen da 75 urtetik gorako adinekoen kasuan, eta laugatik, 85 urte baditu. Hala jakinarazi da Suteak Prebenitzeko Astearen [hirugarren](#) edizioako lehen hitzaldian; aurten, adinekoen segurtasunean oinarritzen da, eta gaur goizean inauguratu du Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari M^a José Beaumontek.

Nafarroako Unibertsitateak Babes Zibilaren Zerbitzuko langile teknikariekin lankidetzan egindako azterketa batek hautemandako arrisku hori saihesteko (suhiltzaileek eta inguruko beste zenbait herrialdek egindako esku-hartzeen azterketarekin bat dator), Suteak Prebenitzeko Asteak gomendioak eta autobabeserako neurriak emango dizkie adinekoen eta kolektibo horri lotutako beste eragile batzuei, esaterako: egoitzetako arduradunak, gizarte-zerbitzuetako profesionalak edo etxez etxeko arretako langileak. Nolanahi ere, sute baten ondorioz pertsona bat hiltzen den era honetako gertakariak ez dira ohikoak, eta kasu gutxitan gertatzen dira.

Beste neurri batzuen artean, etxebizitzako instalazioa elektrikoa, berokuntza-sistema eta tximiniak behar bezala mantentzea aholkatzen da, bai eta su-ontziak ez erabiltzea ere. Emandako beste gomendio bat zartaginak zaintzea da sutan ditugunean, edo plantxa nahiz beroa ematen duten beste tresna batzuk ere sare elektrikoari konektatuta daudenean.

Etxebizitzaren eta arriskutsuak izan daitezkeen tokien garbiketa ere garrantzitsua da, ke-kanpaina, esaterako, bertan koipea pilatzen baita. Arrazoi hori dela-eta, komeni da, halaber, iragazkiak sarritan aldatu edo garbitzea zartagin batek su hartzen duenean kanpaiak berak su har ez dezan.

Barneko Zuzendaritza Nagusiak eta Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak Foru Komunitatean antolatutako Suteak Prebenitzeko Astea Mapfre Fundazioak eta Suhiltzaile Teknikarien Elkarte Profesionalak (APTB) sustatutako ekimena da. Oraingoan, Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Nafarroako Unibertsitateak eta Iruñeko Miserikordia Etxeak ere lagundu dute.

Nafarroako Gobernuaren asmoa adinekoentzako prebentzio-plan bat garatzea da, eta haren barnean kolektibo horretarako neurriak egindako ekintzak sartuko dira. Hala, tartean dauden eragile guztien artean,

elkarrizketa nahiz ideien trukea erraztu nahi dira.

Astearen programa

Aipatu denez, gaur goizean Beaumont kontseilariak Suteak Prebenitzeko Astearen hirugarren edizioa inauguratu du. Iruñeko Misericordia Etxean egindako ekitaldian parte hartu dute ere: Barneko zuzendari nagusi Agustin Gastaminzak; Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari-kudeatzaile Ines Francesek; Nafarroako Mapfreren lurralde-zuzendari Jesus Garridok; Suhiltzaile Teknikarien Elkarte Profesionaleko ordezkari Javier Elorzak; eta Misericordia Etxeko lehendakariorde Michel Iturralde. Jarraian, adineko eta erretiratuen klubetako nahiz eguneko zentroetako arduradunentzat lehen hitzaldia eman da.

Bihar, asteartea, urriak 27, leku horretan bertan eta 11:30etik 13:30era, adinekoen egoitzako eta babestutako etxebizitzaren sustatzaileentzako hitzaldia izango da. Oraingoan, egoitzetako eraikinek izan beharreko ezaugarriak azpimarratuko dira, eta azpiegitura horiek zer arazo izan ditzaketen suhiltzailek esku hartu beharko balute ere.

Asteazkenean, urriak 28, bi hitzaldi emango dira. Lehenengoa, 10:00etatik 12:00etara, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Haginek Eraikinean, teknologiak berriak adinekoen arriskuen prebentzioan nola aplikatu aztertuko da. Bigarrenengoa, 12:00etatik 14:00etara, Nafarroako Unibertsitateko Arkitektura Eskolan, eraikinen diseinuaz eta diseinu horrek jaso beharko zituen prebentzio-neurriez ariko dira.

Ostegunean, urriak 29, Cordovillan (Galar) dagoen suhiltzaileen parke nagusian, suhiltzaile eta babes zibileko zerbitzuetako langileentzako saioa izango da (10:30etik 12:30era); profesional horiek Nafarroako Gobernuak prestatu nahi duen prebentzio-planean nola inplikatu aztertuko da, batez ere.

Ostiralean, urriak 30, Misericordiako Etxean aurreikusitako azken hitzaldia egingo da; oraingoan, gizarte-langile, oinarrizko gizarte-zerbitzu, Iruñeko auzoko unitateetako langile eta Erizaintza zein Gizarte Laneko gradu etako ikasleentzat izango da.

Azkenik, eskolako taldeek Nafarroako Gobernuko [suhiltzaileen parkeak](#) bisitatuko dituzte, eta bertan profesional horien lana ezagutu ahalko dute, beren lan-tresnak eta erabiltzen dituzten ibilgailuak; horrez gain, prebenitzeko eta gomendioak jasoko dituzte eta nola jokatu izan daitezkeen suteen aurrean. Bisita horietan parte hartutako ikasleek bere adinari egokitutako [prestakuntza-koaderno](#) bat jasoko dute, eta bertan suteak ekiditen ikasiko dute, zer egin sute bat pizten bada, zein den larrialdietarako telefonoa edo babesteko ekipo nagusiak, su-itxalgailuak eta sute-ahokak, adibidez.